

2014-05-27ko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2014ko maiatzaren 27an, arratsaldeko 7:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ainhoa Ugalde Gorostiaga izan da, korporazioko alkate-lehendakaria, eta ondorengo gaiak aztertzeke zinegotzi hauek agertu dira:

-BERTARATUAK:

Bildu udal-taldekoak: Ainara Mugika Iruretagoyena, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra eta Gorka Murua Macuso.

-EZ BERTARATUAK:

Bildu udal-taldekoak: Josu Yurrita Loitegui, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Tomas Etxeberria Sarasola.

EAJ/PNV udal-taldekoa: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusinek, Udaleko idazkariak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO. (2014-04-29).

2014ko apirilaren 29ko ohiko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2014KO APIRILAREN 25ETIK 2014KO MAIATZAREN 23RA (60/2014-81/2014).-

Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

2014ko 60 zenbakitik 81 zenbakira bitartekoak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

2013. EKITALDIKO IRURAKO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Alkatearen Dekretuaren berria eman da:

“Udal honen 2013ko aurrekontuaren likidazioari buruz kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT

Lehen.- Udal honen 2013ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2013-12-31n:		569.088,02
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2013-12-31n:		98.167,75
Aurrekontuko zordunak :	94.027,03	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	4.150,73	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	-10,01	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2013-12-31n:		408.181,63
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	117.060,83	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	291.120,71	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,09	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		259.074,14
5.- Saldo kobragaitzak:		9.655,10
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		249.419,04
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		249.419,04
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		10.704,76
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		-4.345,64
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		216.441,46
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		222.800,58
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		0,00

ez zuen gainditu probaldiaren epea eta bigarrenean esleitu gabe geratu zen.

Hori ikusita Udalak erabaki du zuzenean esleitzea ustiapenaren emakida, baina bakarrik probaldiaren eperako.

Hori ikusita, Udaltzako aho batez hau erabaki du:

ERABAKIA

Lehen.- Ametsa Udaltzako Trinketeko tabernaren zerbitzu-gestioa zehazten duen kontratua Koldo Seara Errondosoro eta Aitor Besance Martíni esleitzea, honako baldintzekin:

a) Hasieran 12 hilabeteko probaldiz, 2014ko ekainaren 13tik hasita.

b) Emakidadunak eraikin osoa garbitzeaz arduratuko dira.

c) Kanon negatiboaren kontzeptu gisa eta eskaintako zerbitzuengatik, Udaltzako hileroko 850 euro ordainduko dizkie emakidadunei, honela banatuta: 702,48 € + 147,52 € (BEZ -% 21). Udaltzako diru kantitate hori hiruhilekoaren hasieran ordainduko du.

d) Era berean, trinketea

bar del Trinkete municipal. La primera no supero el periodo de prueba y la segunda quedó desierta.

Ante ello, ha decidido adjudicar directamente, pero solo para el periodo de prueba, la concesión de la explotación.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ACUERDO:

1º.- Adjudicar a D. Koldo Seara Errondosoro y D. Aitor Besance Martín la ejecución de la gestión del bar del Trinkete Municipal Ametsa, de acuerdo con las siguientes condiciones:

a) Este contrato tendrá una duración máxima de 1 año a contar desde el 13 de junio de 2014.

b) Los concesionarios se encargarán de la limpieza del total del edificio.

c) En concepto de canon negativo y por los servicios prestados, el Ayuntamiento abonará mensualmente a los concesionarios, la cantidad de 850 euros más IVA, de acuerdo con el siguiente desglose: 850 € + 178,50 € = 1.028,50 €. La cantidad será abonada por este Ayuntamiento trimestralmente y con carácter anticipado.

d) Así mismo participarán en la

erabiltzeagatik ordaintzen diren tasen bilketan % 50ean hartuko dute parte.

e) Kontratu honetan xedatzen ez den guztiari aplikatuko zaio Ametsa Udal Trinketeko taberna kudeatzeko baldintza ekonomiko-administratibo partikularren agiria, Udalbatzak onartua 2014ko urtarrilaren 28ko bilkuran eta kontratu honi eransten zaiona.

Bigarrena.- alkate-lehendakari andereari baimena ematea, kontratua sinatzeko, udalaren izenean eta ordezkari gisa.

recaudación de las tasas por utilización del trinekte en un 50%.

e) En lo no dispuesto en el presente contrato, se estará a lo dispuesto en el Pliego de Cláusulas Económico Administrativas Particulares del contrato de gestión del mismo aprobadas por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 28 de enero de 2014.

Segundo.- Facultar a la Sra. Alcalde-Presidente para la firma del contrato, en nombre y representación del Ayuntamiento.

SEIGARREN GAIA

IRURAKO TRINKETE-FRONTIOIA ERABILTZEKO ARAUDIAREN 1º ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

Irurako trinkete-frontoia erabiltzeko araudia onartu zenetik eskarmentuak aholkatzen du aldaketa batzuk sartzea araudian.

Kultura-batzorde informatiboak aldeko txostena egin du 2014ko maiatzaren 27ko bileran.

Eta hori ikusita Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

ERABAKIA

Lehena.-Irurako trinkete-frontoia erabiltzeko araudiari lehengo aldaketaren hasierako onarpena ematea, eduki honekin:

La experiencia desde la aprobación del Reglamento de Utilización del Trinkete y del Frontón de Irura aconseja la introducción de varias modificaciones en el mismo.

Visto así mismo el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Cultura en reunión celebrada el día 27 de mayo de 2014.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ACUERDO:

Primero.-Aprobar inicialmente la 1ª modificación del Reglamento de Utilización del Trinkete y el Frontón de Irura, con el siguiente contenido:

- | | |
|--|--|
| <p>a) Kantxaren erreserba: ezingo da hilabete bat baino gehiago utzi ordaindu gabe. Hilabete pasa ondoren, gutuna bidaliko zaio atzeratuta dabilenari, zor dutena ordaintzeko astebeteko epea emanaz. Ez badu betetzen, erreserba galduko du eta ordu hori libre geldituko da beste norbaitek erreserbatu ahal izateko.</p> <p>b) Bazkideen txartela ordaintzea: 3 hilabete jarraian ordaintzen ez duenari txartela indargabetu egingo zaio.</p> <p>c) Ikastaroetako matrikulazioa: ezingo da ikastaro batean matrikulatu, aurreko hiruhilekoa ordaindu ez duenak.</p> <p>d) Txartela edo matrikulazioa: bazkide txartela eskuratzeko edo ikastaro batean matrikulatzeko ezinbestekoa izango da zorrik ez izatea Udalarekin.</p> | <p>a) Reserva de cancha: No se puede dejar sin pagar más de un mes. Pasado el periodo de un mes, se le advertirá mediante oficio que tiene una semana de plazo para pagar. En caso contrario, perderá la reserva y quedará libre para que cualquiera puede reservarla.</p> <p>b) Abono de la tarjeta de socio: En el caso de no abono de la tarjeta en el periodo de 3 meses seguidos, la tarjeta quedará sin validez.</p> <p>c) Matriculación para cursillos.- No se podrá matricular en ningún curso, quién no haya abonado los tres meses anteriores.</p> <p>e) Tarjeta o Matriculación.- Para obtener la tarjeta de socio o para matricularse en algún cursillo será condición indispensable no tener ninguna deuda con el Ayuntamiento.</p> |
|--|--|

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea eta interesatuei entzunak izateko aukera ematea, 30 egun balioduneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz.

Segundo.- Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados por el plazo de 30 días hábiles, mediante Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Hirugarrena.- Ez bada kexarik eta iradokizunik aurkezten, espedientea behin betiko onartzen da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko testua argitaratuko da.

Tercero.- En el caso de que no se presenten reclamaciones o sugerencias, el acuerdo devengará definitivo y se obrará de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente.

ZAZPIGARREN GAIA

**MAIATZA KULTURA 2014 ETA EUSKAL JAIA 2014REN
AURREKONTUAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Udalak Maiatza Kultura 2014 eta Euskal Jaia 2014 ospatu nahi ditu. Orain hauen aurrekontuak onartu nahi dira.

Kultura-batzorde informatiboak 2014ko maiatzaren 15ean egindako bileran aldeko erabakia hartu du.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki hau onartu du:

ERABAKIA:

1.- Irurako Udalak 5.000 €-ko gastua bere gain hartzea, aipatutako Maiatza Kultura 2014ko ekintzek eragindako gastuetarako.

2.- Gastua udal-aurrekontuetan kultura arloko ekimenak burutzeko zehaztutako partidari egoztea.

ZORTZIGARREN GAIA

**“TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDE” MOZIOA ONARTZEA,
HALA BADAGOKIO.**

“Tolosaldea Osasun Publikoaren Mozioa” aurkeztu da:

“Tolosaldea da eskualde bakarra Gestio Publikoko Eskualdeko Ospitale Publikoa ez daukana, nahiz eta horrelako ospitale bat edukitzeko behar beste biztanle izan, 65.000, hain zuzen ere.

“Tolosaldea es la única comarca, con capacidad poblacional para ello, 65.000 habitantes, que no tiene un Hospital Comarcal Público de Gestión Pública.

Egoera horrek, Osasun eta Kontsumo Sailak berak zabalduzako foiletoren bidez aitortutako egoera horrek, ekarri du Tolosaldeak ezin izan duela urtetan baliatu osasun zerbitzuaz Gipuzkoako gainontzeko eskualdeen baldintza beretan.

Esto, reconocido incluso por el Departamento de Sanidad y Consumo en folleto ampliamente difundido ha ocasionado que durante años “Tolosaldea no disfrutase de las mismas condiciones de servicio sanitario que las demás comarcas de Guipuzkoa”.

Eskualdeko osasun arreta hobetzeko, Osasun eta Kontsumo Sailak proposatu zuen Tolosaldean

Para mejorar la atención sanitaria de la comarca el Departamento de Sanidad y

berrantolatzea arreta espezializatua 2012ko urtarriletik aurrera. Horrek hauxe zekarren: espezialitateen ambulatoriotik espezialistak desagertzea progresiboki; ospitaleratzeako orduan eskualdeko erreferentziazko ospitalea Asuntzio klinika izatea, ezin izango zuelarik Tolosaldeako jendeak Donostia ospitalera jo, berrantolaketa egin bitartean egin izan zuen bezalaxe, hala nahi izan zuenean; eta ospitale zerbitzu berriak martxan jarriko zituztela.

Osasun arretaren berrantolaketa hori pairatu ondoren, TOPA plataformak egindako Herri Ebaluazioaren arabera, hasiera hartan baino okerrago gaude orain: eskualde honetan inoiz ezagutu ez diren itxaron-zerrendak daude; kexa asko; espezialistak ez diren medikuek atenditzen gaituzte; batzuetan botikak eskatzen dizkigute ospitaleratuta dauzkagun familiartekoak tratatzeko, etab., hau da, jasotzen dugun osasun arreta geroz eta gehiago ari da urruntzen gainontzeko eskualdeetan ematen den zerbitzuetatik, nahiz eta guk haiek bezala ordaintzen dugun.

Gure iritziz, hau guztia dator eskualde honetan gertatzen ari den ospitale zerbitzuen ezkutuko pribatizaziotik, Arreta

Consumo propuso a partir de enero del 2012 una reorganización de la atención especializada en la comarca de Tolosaldea que conllevaba: el que progresivamente fuesen desapareciendo los especialistas del ambulatorio de especialidades y, que a la hora de ingresar la clínica de la Asunción fuese el hospital de referencia de la comarca no pudiendo acudir los vecinos al hospital Donosti si lo querían, como lo venían haciendo hasta el momento de la reorganización, además de que se pondrían en marcha nuevos servicios hospitalarios.

Tras haber estado padeciendo esta reorganización de la atención sanitaria la Evaluación Popular realizada por la plataforma TOPA es que en el momento actual nos encontramos todavía peor a como lo estábamos al inicio de la misma: listas de espera como nunca han existido en esta comarca; múltiples quejas; venimos siendo atendidos por médicos que no son especialistas, nos solicitan en ocasiones medicamentos para tratar a nuestros familiares ingresados, etc y nuestra calidad de atención sanitaria se va distanciando cada día más de la que vienen recibiendo los vecinos del resto de comarcas, a pesar de que pagamos lo mismo que ellos.

Somos de la opinión de que todo ello es fruto de esta Privatización encubierta de los servicios hospitalarios que se ha

Espezializatuaren Berrantolaketa dela-eta. Gainera, Tolosaldean egiten ari direna Esperientzia Pilotu bat da, hain zuzen ere, privatizazio hau etorkizunean aurrera eramateko Euskal Herri osoan.

Horregatik guztiagatik Eusko Jaurlaritzako Osasun Batzordera jo dugu, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan erabaki dute:

- Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari urtebeteko epean bermatzeko eskualdeko ospitale bat Tolosaldean, Osakidetzaren sare publikoaren barruan.
- Gipuzkoako Batzar Nagusiek eskatzea Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuari mantentzeko eta/edo berreskuratzeko 2011 arte espezialitateen ambulatorioan - Tolosaldea osoari begira- funtzionatzen zuten espezialisten kontsultak.

realizado en esta comarca con la Reorganización de la Atención Especializada y de que además lo que se ha hecho en Tolosaldea es una Experiencia Piloto para extender más adelante esta Privatización al resto de Euskalerría.

Por todo ello hemos acudido a la Comisión de Sanidad del Gobierno Vasco y en las Juntas Generales de Guipuzkoa, se ha tomado este Mandato Imperativo:

- Las Juntas Generales de Guipuzkoa instan al Consejero de Salud del Gobierno Vasco a que en el plazo de un año garantice a la comarca de Tolosaldea un hospital comarcal dentro de la red pública de Osakidetza .
- Las Juntas Generales de Guipuzkoa instan al Consejero de Salud del Gobierno Vasco a que mantenga Y/o recupere todas las consultas de especialidades que funcionaban hasta el 2011 en el ambulatorio de especialidades que daban cobertura a toda la comarca de Tolosaldea.

Horregatik guztiagatik

Por todo lo expuesto

DEI EGITEN DIEGU ORAINGO HACEMOS UN LLAMAMIENTO A

UDALBATZA OSATZEN DUTEN
ALDERDI GUZTIEI JARRERA BAT
HAR DEZATEN HONAKO PUNTU
HAUEN GAINEAN:

LOS DISTINTOS PARTIDOS QUE
CONFORMAN LA ACTUAL
CORPORACIÓN MUNICIPAL PARA
QUE SE POSICIONEN ANTE LOS
SIGUIENTES PUNTOS :

1.- Mantentzea Espezialitateen
Ambulatorioaren zerbitzu publikoa,
2011 arte funtzionatzen zuen moduan.

1.- Por mantener el servicio público
del Ambulatorio de Especialidades
como venía funcionando hasta el 2011.

2.- Tolosaldeak Eskualdeko Ospitale
Publikoa edukitzea, Gipuzkoako
gainontzeko eskualdeek duten
moduan. Horretarako, Asuntzio
klinika publikatu egin behar da, gai
horretan inplikaturik dauden
agenteekin Lan Mahai bat sortu eta
gero.

2.- Por que se provea a la comarca de
Tolosaldea de un Hospital Comarcal
Público como el que tienen el resto de
comarcas de Guipuzkoa para lo que se
publicará la clínica de la Asunción,
tras la creación de una Mesa de
Trabajo conformada por todos los
agentes implicados en el tema.

3.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea
geldiarazteko Euskal Herrian egiten
ari diren pribatizatze ekintzak.

3.- Por que soliciten al Gobierno Vasco
el que se paralicen las experiencias de
privatización que se están realizando
en Euskalerría.

4.- Eskatzea Espainiako Gobernuari
eta Madrileko Kongresuari
indargabetezko 15/97 Legea, aukera
ematen duena pribatizazio
esperientzia hauek gauzatzeko.

4.- Por que pidan al Gobierno de
España y al Congreso de Madrid que
derogen la Ley 15/97 que posibilita
estas experiencias de privatización.

5.- Dei egitea herritar guztiei parte
hartzera Tolosan, ekainaren 7an,
egingo den manifestazioan, lan-mahai
bat sortzearen alde."

5.- Se hace un llamamiento a la
ciudadanía a participar en la
manifestación en Tolosa el 7 de junio,
por la creación de una mesa de
trabajo.

Hori ikusita Udalbatzak aho batez onartu du.

BEDERATZIGARREN GAIA

“EUSKAL KIROL SELEKZIOAREN ALDE” MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

“Zioen adierazpena.

EUROPAR BATASUNAREN OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA (2007/C 303/01) (2007/C 303/01 21. artikuluan, 1 eta 2. puntuan dioena kontuan hartuta:

1. Bereizkeria oro debekatzen da, eta, bereziki, sexua, arraza, larrukolorea, etnia- edo gizarte-jatorria, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa edo pentsaerak, iritzi politiko edo beste edozein motatakoak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaiotza, ezgaitasuna, adina edo sexu joera direla bide gauzatutakoa.

2. Naziotasunaren ondoriozko bereizkeria oro debekatzen da, Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaren eta Europar Batasunaren Tratatuaren aplikazio-esparruan, tratatu horietako xedapen bereziak gorabehera.

Gurean aldiz, nahiz eta gizartearen gehiengoak bat egin, euskal selekzioa baztertua da nazioarteko txapelketetatik. Botere publikoek, naziotasun eskubidea bermatzeaz gain, gizartearen nahiari modu positiboan erantzun beharko liokete, eskura diren bitartekoak erabiliz.

Zentzu honetan, erakunde honen konpetentzia euskal selekzioa baztertzea ekiditea ez bada ere, ekarpen xume bat egin lezake, dagozkien instituzioei, udaletxe eta herri honen aldarria helarazi eta egungo bazterketa ezar ez dezaten. Eta bazterketa hau kirol eremu guztietan ematen bada ere, egun mahai gainean dagoen eztabaida kontuan hartuta, alegia futbola eta Eurokopa, honako mozioa aurkezta da.

Hau dela eta, honako mozioa aurkezten da.

Mozioaren testua

Irurako Udalak, Irurako herritarren borondatearen ordezkari gisa, honako eskaria luzatzen du:

1.- Euskal selekzioak ofizialki nazioarteko txapelketetan gainerako selekzioen baldintza beretan lehiatu dezan aldarrikatzen du.

2.- Eta hori ahalbideratu ahal izateko, UDALAK, Espainiako Futbol Federazioari, Euskal Selekzioari ezarritako betoa kendu eta nazioarteko txapelketetan parte hartzea ahalbidera diezaiola eskatzen dio.”

Eta Udalbatzak aho batez onartu du.

HAMARGARREN GAIA

“PALESTINAR HERRIAREN ALDE” MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkezten da:

“3.- MOZIOAN SARTU BEHARREKO ELEMENTUAK / MOZIO PROPOSAMENA

Maiatzaren 15a, Nakba eguna izaki, Israelgo Estaturaren sortu eta palestinarren erbestaldi luzeari hasiera eman zion hondamendi eguna, Irurako udalak ondorengo adierazi nahi du:

1. Egun, lau miloi palestinar baino gehiago bizi dira oraindik erbestean errefuxiatu-eremuetan. Nakba egunetik 66 urtera, palestinarren eskubide nazionalak urratuak jarraitzen dute: Gaza isolatua dago eta biztanleek blokeo kriminal bat pairatzen dute. Oinarrizko giza eskubideen urraketa eguneroko ogia izaki, udal honek egoera hori salatu nahi du.
2. Egoera salatzeaz gain gure elkartasun osoa adierazi nahi diegu palestinarrei. Horregatik, maiatzaren 15ean, udaletxeko balkoian palestinar bandera jarriko da. Eta era berean, egun horren inguruan antolatuta ahal diren ekimenetan parte hartzeko deia luzatzen diegu herritarrei.”

Hori ikusita, Udaltzako aho batez onartu du.

Galdera eta eskarien atalaren aurretik, ondorengo gaia tratatu da, presazko egoera adierazi baitute batzarkideek aho batez, hauek, Udaltzako, partaideen legezko gehiengo osoaren aldeko botoa osatzen baitute.

HAMAIKAGARREN GAIA

BIDEGI S.A.REKIN LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia S.A-k (Gipuzkoako Foru Aldundiko Sozietate Publikoa) kudeatzen eta ustiatzen du AP-8 eta AP-1 autobietako Gipuzkoako zatiak eta proposatzen du Lankidetzaren Hitzarmena sinatzea deskontuaren eskatzaileak Gipuzkoako Udalerri batean dagoela egiaztatzeko.

Hori ikusita, Udaltzako aho batez hau onartu du:

ERABAKIA:

Lehenen.-Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Irurako Udalaren arteko hitzarmena onartzea, AP-8 eta AP-1 autobideetako Gipuzkoako zatiei buruzkoa.

Bigarrenen.- Alkate-lehendakariari, Ainhoa Ugalde Gorostiagari, ahalmena ematea aipatu hitzarmena Irurako Udalaren izenean eta honen ordezkari gisa sinatzeko.

Hirugarrenen.- Gipuzkoako Foru Aldundiari erabaki honen berri ematea.

HAMABIGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Epe honetan erabaki da pankarta bat jartzea udaletxeko balkoian lelo honekin: "GEURE IKURRINA".

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA